

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

EGA ziurtagiria lortzeko matrikula epea zabalik da

Azterketa egin nahi dutenek abenduaren 20a bitartean dute izena emateko epea

Astelehena, 2018.eko azaroak 26

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak astelehen honetan EGA ziurtagiria lortzeko matrikula egiteko epea zabaldu du. Izen-emate epea datorren abenduaren 20an amaituko da. Interesa duten pertsonak Hezkuntza Departamentuko Informazio Atalean eman beharko dute izena, 08:30etatik 14:30etara bitartean.

Matrikula egiterakoan azterketa eskubideen kontzeptuan 26 euro ordaindu beharko dira. Lehen mailako familia ugarien kasuan 13 euro ordainduko dira, eta bigarren mailako familia ugariak ez dute ezer ordaindu beharko.

Hiru froga

Lehen deialdiko azterketak otsailean burutuko dira, eta 2019ko irailean bigarren deialdikoak. Deialdi bakoitzak hiru froga izango ditu: orokorra, idatzizkoa eta ahozkoa. Hala, lehen froga hizkuntza ezaugarriak oinarri izango dituen 80 galderako testa, eta ulermen ariketak izango ditu. Bigarrenengan bi idazlan egin beharko dira. Azken froga, ahozkoa izango da.